

auzoaz auzo • auzoaz auzo • auzoaz auzo

altza

Tolosatik Altzara

Abesbatzek hiru egunetan elizan kantatuko dute

Urtero bezala, aurtengotan ere, Altzak bat egingo du Tolosako Nazioarteko Abesbatzen lehiaketarekin eta auzoan izango ditugu lehiaketa horretan parte hartuko duten hainbat talde.

Hilaren 26an emango zaio hasiera Tolosan CITEk antolatutako abesbatz txapelketari eta urriaren 31tik azaroaren 2ra arte Altza eta Herrerako elizetan talde hauen musika eta ahotsak entzuteko aukera izango dugu.

Ukraniarrak Herreran

Urriaren 31an Herrerako San Luis elizan Ukrainatik iritsitako abesbatza arituko da. «Kiev Female Choir» abesbatza 38 emakumek osatzen dute eta folklore abestiez eta polifoniaz osatutako errepertorioa eskainiko dute Galina Gorbatenko-ren zuzendaritzapean. Kontzertua arratseko 20.00etan hasiko da.

Kanpotarrak eta etxeakoak

San Martzial elizan berriz bi abesbatzek kantatuko dute. Alde batetik, azaroaren 1ean Estatu Batuetatik etorritako «University of Iowa» taldeak eskainiko du emanaldia William Hatcher-en batutapean 20.00etan. Abesbatz honetan 16 gizonzok eta 16 emakumek

parte hartzen dute eta Altzarako 16 piezaz osatutako egitaraua prestatu dute.


Azkenik, hilaren 2an, aurreko bien ordu berean, Itxaropena zortzikotea izango dugu San Martzial elizan.

Zortzikote hau 1968. urtean sortu zen eta orduz geroztik, kontzertu ugari eskaini ditu bai auzoan eta baita auzotik kanpo ere.

1993. urtean Mexikoko hiriburuan, D.F.n, hiru kontzertu eskaini zituzten. Urte berean zilarrezko eztaiak zirela eta, beren kantu ezagunenekin diska grabatu zuten.


Zortzikote honen ahotsak tenoreak eta baxuak dira eta Imanol Elizasuk egiten ditu zuzendaritza lanak.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Itxaropena zortzikoteak azaroaren 2an eskainiko du kontzertua San Martzial elizan.

EZKONTZAK • JAUNARTZEAK • BATAIOAK



ETXEBERRI

JATETXEA

LEZOTIK GAINXURIZKETA BIDEA • TFNOA.: 52 98 89 LEZO


LORADENDA



Lorea

Santu guztietarako koroak, zentruak...
prezio onean

Arrizar 14 • Tfnoa.: 35 79 39



Casa de Labeos

1930ean sortua

Jostura eta tapizeriak

Artile eta hari-kontuetan etxerik hoiberenak

Elkano, 5 Tfnoa: 42 02 05 Donostia